



**Sinn Feinek
IRArekin zituen
elkarrizketak
boikotatzea
egotzi dio
Adamsek
Londresi** • 26

politika

■ Lasa-Zabalaren auzia

Lekuko babestu baten deklarazioak agerian utzi du gerra zikina Intxaurrendok zeramala • 6

gizarte

■ EHUKo errektoregaiari elkarrizketa



Juan Ignacio Perez: «Prestatu dugun progama EHUKo errealitatean sustraitua baina geroko programa da» • 15

ekonomia

■ Lan istripua

Beste langile bat hil da Araban, oraingoan Dulantzín • 23

mundua

■ Wiranto krisi politiko gero eta larriagoa eragiten ari da Indonesián • 28

Eskuin muturreko gobernuak

EBko herri indartsu gehienek Austriarekiko harremana eten dute

Frantziako Gobernuak proposatu ditu bakartzeko neurri zorrotzenak

■ ESKUIN MUTURRAK eta alderdi kon-
tserbadoreak osatutako Austriako
Gobernua zigortu egin dute Europako
Batasuneko herri askok. Frantziak, Ale-
maniak, Espainiak, Belgikak eta Erresu-

ma Batuak alde biko harremanak eten
dituztela iragarri zuten atzo ofizialki.
Frantzia oso jarrera gogorrean dago, eta
Austriako ministroei EBko bilera ez-for-
maletan ere ez zaiela parte hartzen utzi

behar uste du. Bien bitartean, Austrian
bertan, istiluak izan ziren atzo; milaka
herritar Klestil lehendakariaren jauregia-
ren aurrean bildu ziren, Gobernuaren
osaketa dela-eta protestazeko. • 25

EDURNE KOCH



Santa eskean koplaka

■ EUSKAL HERRIKO txoko anitzetan haur, gazte eta heldu
ugari, baserriz baserri edo kaleetan eskean izan ziren, usadio-
ari eutsiz, Santa Ageda bezperan: dirua batzuetan, jateko eta

edateko beste batzuetan, baina denak Santa
Ageda bezperako legea betetzen. Argazkian,
Aizarnazabalgo Basakaitz herri ikastetxeko haur taldea ageri
da, joan den astean prestatutako koplak kantatzen gustura
aritu ziren auzoz auzo goiz osoan zehar.

• 56

Urte berriak 4.462 langabe gehiago ekarri ditu

Horietatik, 3.000 emakumeak dira, INEMen arabera

■ 2000. urteak ez du albiste onik ekarri lan bila ari dire-
nentzat. Langabeziak gora egin du, eta nabarmen, gainera,
Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan. INEMek atzo eman-
dako datuen arabera, berriro ere emakumeak dira kaltetue-
nak, azkenengo 4.462 langabeetatik 3.071 emakumezkoak
baitira. • 22

